EUSKALKIAK



Egilea: Irene Arrizibita Legarre
Gizarte Egokitzapena BHI

NOLA EMAN SARRERA EUSKALKIARI NIRE IKASTETXEAN 3
1.- Egoeraren diagnostikoa:..... 3
1.1- Ikasleen tipologia: 3
1.2- Irakasleen tipologia: 3
1.3- Gurasoen tipologia: 3
2.- Hasi baino lehen hartu beharreko hainbat erabaki/oinarri: 4
3.-Helburuak:..... 4
3.1-Helburu orokorrak:..... 4
3.2- Helburu zehatzak:..... 5
4.- Edukiak: Zer landuko da euskalkiari dagokionez 5
5.- Bitartekoak:..... 6
5.1- Bitarteko materialak: 6
5.2- Bitarteko pertsonalak 6
6.- Metodologia 6
7.- Jarduerak 7
8.- Epeak..... 8
9.- Ebaluazioa..... 8
10.- Bibliografia 9
101- Hiztegiak:..... 9
102- Ahozko Literatura- (kontakizunak, esaera zaharrak, kantak, bertsoak, asmakizunak,…) 9
103- Literatura idatzia 10

NOLA EMAN SARRERA EUSKALKIARI NIRE IKASTETXEAN

1.- Egoeraren diagnostikoa: ikasleen tipologia, irakasleen tipologia, gurasoen tipologia

Gizarte egokitzapena institutua goi zikloko lanbide heziketakoa da. Horretan hiru ziklo irakasten ditugu, hala nola, Haur Hezkuntza, Gizarte Integrazioa eta Gizarte eta Kultura Animazioa. Hirurehun ikasle inguru ditugu.

Gainera, etortzen zaizkigun ikasleak hemezortzi urtetik gorakoak dira, bai batxilergotik, bai lanbide heziketatik, ondorioz, ikasle hauek helduak direla esan dezakegu.

Gaztelania da hizkuntza nagusia, aurreko hiru zikloetan, irakasleen artean eta gainerako lankideengan. Baina 2005-06.ikasturtean Haur Hezkuntza D ereduan (euskaraz) hasi ginen irakasten, beraz, hirurehun ikasle horietatik hogei, euskaldunak dira lehenengo mailan eta beste hogei bigarren mailan, guztira berrogei ikasle.

Esan beharra dago, gainerako zikloetan baditugula zenbait ikasle euskaldunak, baina ez zaie entzuten euskaraz hitz egiten .

Gure ikasleak Nafarroako eskualde guztietakoak dira, adibidez, ikasgela berean Tutera, Leitza, Lizarra, Agoitz, Arantza, Elizondo, Tafalla, Iruñea, Huarte, Burlata, Atarrabia, Barañain, Zizur, eta abarrekoak dira.

Bestalde, lehen aipatu dudan bezala irakasle gehienak erdaldunak dira eta soilik guretariko bost gara euskaldunak. Aipatu beharra dago ere, zuzendaritza erdalduna dela. Harreman gehienak erdaraz izaten dira, eta dokumentazio gehiena ere bai.

Ildo beretik, Nafarroa osoan ziklo hau eta gainera euskaraz irakasten dugun bakarrak gu gara. Zer esanik ez, izan ditugun zailtasunak euskaraz irakasteko, materialik eta baliabiderik falta, eta abar, baina, ikasleak aurrera doaz eta kurtso honetan lehenengo promozioak amaituko du.

Gurasoei buruz, Iruñeko eta Iruñerriakoak, gehienak erdaldunak dira, baina badira euskaldunak ere, eta bereziki euskaldunak dira herri erdaldunetan bizi direnak.

Honelako proiektu baten aurrean izango den jarrera, ez dela egongo oztoporik pentsatzen dut, ezen bakarrik D ereduko 1. mailan garatuko baita

2.- Hasi baino lehen hartu beharreko hainbat erabaki/oinarri:

Hasieran esan dudan bezala, gure ikasle batzuk herri euskaldun batzuetatik datoz, eta bere tokiko euskalkia hitz egiten dute bere familietan.

Horiek horrela, landuko den euskalkia Nafarrera izango da, eta honen barruan, bere zonaldeetako ematen diren aldaerak.

Programaren berri klaustroan emango da, gainontzeko zikloetan euskaldunak diren ikasleei parte hartzeko eta nahi duen irakasleari ere bai.

Klaustroan proiektua aztertuko da eta honi buruzko erabakiak denon artean hartuko dira, adieraziz hau proposamen bat, besterik ez dela.

Ondoren Haur Hezkuntzaren zikloaren bilerara eramango da proposamen hau, eta D ereduko irakasleen adostasuna lortzen bada, bidea eman diezaiokegu proiektu honi.

Azkenik, Eskola Kontseilurako bileran aurkeztuko da. Hor, beharrezkoak izango diren baliabide ekonomikoak eskatuko dira,eta onartutzat ematen badute proiektua hasiko da.

3.-Helburuak:

3.1-Helburu orokorrak:

1 Ikasgelan entzuten ditugun Nafarroako euskalki eta aldaerak ezagutu.
2 Gure ikasleen hizkera desberdinak balioetsi.
3 Nafarreraren aldaerak hitz egiteari baloratu, gelan erabiltzeari balio

positiboa eman.
4 Hizkuntzaren ikuspegi zabala eman.

3.2- Helburu zehatzak:

1 Klasean hitz egiten diren aldaerak eta bere jatorrizko zonaldea identifikatu.
2 Nafarreraren ezaugarri nagusiak ezagutu eta landu. Haien herriko, etxeko hizkeraz, haurrendako abestiak ikasi.
3 Haien etxeetan kontatutako ipuinak kontatu eta gainontzekoek ikasi .
4 Herriko esaerak kontatu eta gainontzekoek ikasi.
5 Haurraren zaintzari buruzko ohiturak bere hizkeretan kontatu eta berariazko hiztegia ikasi.
6 Haien haurtzaroaren, bere guraso eta bere aitona-amonen jolasak azaldu eta ikasi.
7 Nafarroako mapan aldaera desberdinak kokatu.
8 Ipuin bat aukeratu eta antzeztu.

4.- Edukiak: Zer landuko da euskalkiari dagokionez

1 Aldaera bakoitzaren berariazko lexikoa.
2 Abestiak.
3 Ipuinak.
4 Esapideak, esaera-zaharrak, errefrauak.
5 Kontakizunak, asmakizunak.
6 Haurtzaroko jolasak.
7 Nafarreraren aldaera desberdinen kokaguneak Nafarroan.
8 Nafarreraren ezaugarriak, fonologia, morfologia morfosintaxia
9 Nafarreraren egungo egoera eta geroa.
10 Nafarrera eta batua, antzekotasunak, desberdintasunak.
11 Nafarreraren ahozkotasuna.
12 Nafarreraren historia.

5.- Bitartekoak:

5.1- Bitarteko materialak:

1 Liburuak: ikusi bibliografia.
2 Ipuinak.
3 Euskalkietako hiztegiak.
4 MP3,Telebista, Ikusi-entzungailuak,…
5 Kamera.
6 Ordenagailua.
7 Fonotekatik hartutako grabaketak.
8 Euskal Herriko mapa eta Nafarroako mapa.
9 Kartulinak, margoak, guraizeak, itsaskina.
10 Oihalak, kolore desberdinetako artileak.
11 Nafarroako euskalkiak.CDa. EIBZ

5.2- Bitarteko pertsonalak

1 Haur Hezkuntzaren D ereduko ikasleak.
2 HHren irakasleak.
3 Ikasle baten aitona edo amona.
4 Ikastetxeko atezaina, arazo teknikoren bat izatekotan bere laguntza izateko.

6.- Metodologia

Euskalkiak izeneko gaia Hizkuntzaren Garapena eta Haur Hezkuntzaren Didaktika arloetan landuko da. Horretan, beste arloetan bezala, talde txikietan bereziki lan egingo dugu.

Ikasleak talde txikietan banatuko dira : 4-5 pertsona. Talde hauen osaketan kontutan izango dute, talde txiki bakoitzean euskalki baten mintzatzaile bat gutxienez egon beharko dela Euskalki bati buruzko proiektu bat prestatu behar dute. Proiektuaren atalak hurrengoak izan behar dira:

1. Dagokien euskalkiari buruz, zenbait GALDERA eta zenbait

HIPOTESI aurrerako dituzte.
2. IKERKETA egingo dute datuak bilatzeko, ahozko eta idatzizko ipuinak, abestiak, literatura, grabaketak, internet, EIBZ ren CDa, herriko liburutegietan, gelan prestaturiko txokoan dagoen materiala,…
3. Bildutako material guztia AZTERTUKO dute.
4. ONDORIOAK aterako dituzte.
5. Haien galderei ERANTZUNA emango diete eta haien HIPOTESIAK BAIEZTATU ALA DEUSEZTATU dute lortutako ikasketekin.
6. Amaitzeko, bere lanaren TXOSTENA ETA AZALPENA egingo dute.
7. Lan honen ADIERAZPEN PRAKTIKOA, hala nola, euskalkia erabiliz haurrendako dramatizazio txiki bat.

Esan beharra dago. Proiektu bat antolatzeko beti aurretik hipotesiak edo galderak egin behar dira, adieraziz zer lortu edo ezagutu nahi dugu gaiari buruz. Eta, orokorrean, proiektuaren metodologia, metodo zientifikoarena dela esan dezakegu bere pauso guztiekin .

Halaber, ikasgelan euskalkiei buruzko zenbait txoko antolatuko dugu. Lehenengo batean, liburuak, hiztegiak, ipuinak, ordenagailua (CD), telebista, grabagailua, Euskal Herriko euskalkien mapa eta bestelako materialak egongo dira kontsultarako eta material berriak sortzeko, hala nola, bere grabaketa propioak eta abar.

Beste txoko batean, plastika antzeko txoko bat osatuko dugu, horretan aurkituko dira margoak, guraizeak, kartulinak, folioak, oihalak, itsaskina, kolorezko artileak,…, beraien dramatizazioa prestatzeko.

7.- Jarduerak

1 Herriko eta etxeetako materiala bildu, klasera ekarri.
2 Txokoak antolatu. Bildutako materialarekin.
3 Liburutegiak bisitatu eta zenbait liburu kontsultatu
4 Aiton-amonaren grabaketa egin.
5 Fonoteka bisitatu.
6 Internet-en kontsultak egin

7 Txosten bat prestatu.
8 Ipuin kontaketa, talde txikietan. Buruz ikasi eta gero kontatu, grabatu, idatzi eta gainontzekoei banatu.
9 Talde txikian abestiak ikasiko dituzte, grabatu, idatzi, gainontzekoei banatu.
10 Dramatizaziorako materiala prestatu, txartelak, mozorroak,…

Esan beharra dago jarduera guzti hauek, proiektuaren metodologiaren pauso guztiak betetzen dituzte eta beti ikasleek garatzen dituzte, irakasleak koordinatzen ditu ikasleak eta beti ikasleari lagunduz bere lanean.

8.- Epeak

Euskalkien proiektuaren iraupena 2 hilabetekoa izango da, bigarren hiruhilabetekoan garatuko da, urtarril eta otsailean, hain zuzen. Hasieran aipatu dudan bezala, bi arloetan landuko dute gaia, beraz, 3,5 ordu astean, guztira 28 klase-ordu.

Dena dela, ikasleei proiektua aurkeztuko diegu abenduaren azken klase-astean, eta taldeka antolatuko dira, lana banatzeko, horrela, Gabonetako oporretan, aukera izango dute materiala lortzeko bere herrietan, liburutegietan, fonotekan, eta abarretan.

Gainera, haiek proiektuari bueltak emateko denbora ere beharko dute, eta honekin batera, haien ekarpenak proiektuari gehituko dizkiogu, oporretatik bueltatzean.

9.- Ebaluazioa

Haiek izango dira irakasleekin batera, ebaluazioa egingo dutenak, horretarako, hurrengo ebaluazio moduko tresna erabiliko dute talde handian azalpenak egingo direnean, eta baita txostenak ere.

Adibidez: 1-5 bitarte ebaluatuko dute.

1: Oso gutxi; 2: Gutxi; 3: Nahiko; 4: Ongi; 5: Oso ongi.

Taldekideak	Ulergarritasuna, argitasuna,…	Edukien maila,…	Aberasgarritasuna, hiztegia,diskurtsoa, adibideak,…	Bitartekoak, materialak, pertsonalak,…
Izen 1				
Izen 2				
Izen 3				
Izen 4				

10.- Bibliografia

10.1- Hiztegiak:

-Arana, A., 2001: *Zaraitzuko hiztegia* (Zaraitzuera-Euskara Batua / Euskara Batua-Zaraitzuera).

" , 2002: *Izarbeibarko hiztegia* (Izarbeibarko euskara-Euskara batua / Euskara batua-Izarbeibarko euskara), Nafarroako Gobernua.

-Erdozia, J.L., 2004*: Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua;Euskaltzaindia.

-Estornés Lasa, B., 1997: *Diccionario español – uskara roncalés*; Erronkariko uskararen hiztegia, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

-Huarte, J. V., 2003: *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*, Gobierno de Navarra.

-Ibarra, I., 1999: *Bertsotan leitzeraz.* Hiztegiak, Nafarroako Gobernua.

-Iribarren, F., 1984, Vocabulario navarro, Príncipe de Viana.

-Izeta, M., 1996: *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua.

-Ondarra, F., 1965: *"Voces vascas de Bakaikoa"*, BAP 21, 386-412.

10.2- Ahozko Literatura- (kontakizunak, esaera zaharrak, kantak, bertsoak, asmakizunak,…)

-Erdozia, J. L., 2003: *Sakana erdialdeko bitxikeriak esaerak eta beste*, Nafarroako Gobernua, Bierrik Ekartea.

-(Etxabarrengoa Uskara taldea), 2003: *Supazterreko eleak.* Aezkoa, Erroibar eta Luzaideko ipuinak, aspaldian adituak, Nafarroako Gobernua.

-Ibarra, I., 1999: *Bertsotan leitzeraz.* Hiztegiak, Nafarroako Gobernua.

-Perurena, P., 1996: *Leitzako errege erreginak*, BBK.

10.3- Literatura idatzia

-Irigoien, A. (Ed.) 1957: “Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección M.ª deAzkue”, Euskera, 120-170.
-Izeta, M., 1999: *Baztango Kontuak*, Nafarroako Gobernua & Labayru Ikastegia.
-Pagola, R.M.; Alkiza, E.; Beola, A.; Iribar, I.; Iribar, J.J., 1995: *Bonaparte ondarekoeskuizkribuak: iparraldeko goi-nafarrera* (3 liburuki), Deiker eta Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
2004, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Bilduma osoaren edizio digitala.*Deustuko Unibertsitatea Bilbo